

-Lloba-

LLOBA SORKUNTZAREN AURKEZPEN GAUALDIA
HOGEI'TA PROGRAMAREN SARIDUNA
AZAROAK 22 – ATABAL BIARRITZ
AZAROAK 23 - INTXAURRONDO K.E - DONOSTIA

Txomin Ugartemendiak (Panda Valium) bultzaturik eta Moï Moï kolektikoak eta Baxter and Rojas-ek koekoizturik, « Lloba » proiektua Hogei'ta deialdiaren sariduna da. « Lloba » sorkuntzak euskal mitologiaren ikuspegi berri bat proposatzen du musika elektronikoa, marrazkia, bideoa eta dantza elkarbanatuz.

Hogei'ta" ekintza labelaren kariatara, Euskak kultur erakundeak eta Biarritzeko Atabal gelak Akitania eskualdeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Donostia 2016 – Europako kultura hiriburua Fundazioa, Donostia Kultura, Emankor Sarea (Bilbo), le Rocher de Palmer aretoa (Cenon) eta le Florida gela – Musika anplifikatuak eta arte numerikoak (Agen) bildu dituzte mugaz gaineko proiektu deialdi bat abiatzeko gaurko musiken eta irudiaren alorretan. Euskal kulturaren eta euskararen osagai batzu ber-interpretatu eta itxuraldatuko duten egitasmo berritzaileak laguntzeko ekimena.

EMANALDIAREN LEHEN AURKEZPENA (Musika, dantza eta bideoa)

&

MARRAZKI ERAKUSKETA – Thomas Carretero
FILMAKETAREN ARGAZKIEN PROIEKZIOA
DJ SETS Moï Moï saltsan

ATE ZABALTZEA : 19:30
ZUZENeko EMANALDIA : 21:00
URRIRIK GOMITA AURKEZTURIK

KONTAKTUA PRENTSA

► Pierre Lafitte – 06 88 46 29 57 pierre.collectifmoimoi@gmail.com



Laburpena :

Lloba proiektua emanaldi bizi bat da, musika elektronikoa, VJ-ing, eta koregrafia elkarbanatzen baititu.

Hiru ardatz hauek (musika, dantza eta bideoa) osatzen dira historio bat kondatzeko: Lloba izeneko pertsonai batek biziko duen inimiztasaren erritua, heldutasunera heltzeko momentuan.

Narratzaileen momentu garrantzitsuak bederatzirekin erakitzen ditu, gutxi gora behera 40 minutuko emanaldia sortuz.

Bideo proiektzioa zuzenean hautatua eta nahastua izanen da, VJ-ing deitua den teknika da (DJ, disc jockey-ren moduan, musika mailan). Aintzinetik hautatutako eta montatutako bideo eta marrazkiak osatua izango da VJ-aren « set » delakoa. Eszenatokiaren gibelean jarritako pantaila batean (bere forma ez da halaber angeluzuzena izanen) proiektatuak izanen dira irudiak, dantzariak haien pausua eszenaren aintzinean egingo dituzte, eta musikaria horren esker aldean kokatuko da.

Sorkuntza data garrantzitsu batzuek :

Ekaina : Hogeita programaren sariduna

Uztaila - Abuztua : errealizazio-gidoiaren idaztea + Musikaren konposaketa + Koreografiaren sorkuntza

Abuztua: – Sorkuntzaren « work in progress » aurkezpena Baleapop festibalean – Bidarte – Musika + marrazkiak + dantza


Iraila : Filmazioa Azkainen

Iraila : Cenon-eko Rocher de Palmer aretoan egonaldia – Filmaren muntaketa

Urria : Donostiako Intxaurren kultur etxean egonaldia – Filmaren muntaketa + musika ekoizpena.

Lehen errepika orokorra.

Azaroa : Biarritzeko Atabal aretoan egonaldia – Ikusgarriaren taularatzea.



Artista :

Txomin Ugartemendia - MUSIKALARIA

Tsugi, 2010.an Frantzia mailan ezagutarazi duen aldizkaria da. Panda Valium-en elektro progresiboak Pariseko Nuit Electro gaualdian finalista bilakaarazi du.

Ziburukoa jatorriz, ekoizle gazte horrek, urte batzuk lehenago, erregistro funk (gitarran) eta human beatbox batean agertu zen. Urte berean, « Bubo », haren lehen albumarean ateratzeak, iritzi onak jasotzen ditu, musika arloko prentsan. Segida logikoa, live datak ondoratu egin dira (Euskal Herria, Parise, Bordale, Italia) nun Panda Valiumek eszena partekatu du batez ere Vitalic, Applescal, Matthys, Van of Mart, Remain, San Circles et Harald Bjork artistekin.

Remix ugaritan gonbidaturik, nabarmenduenetarikoak Mattheis, Idiot Idols eta Anestesiarentzat landutakoak izan dira.

2012.urtean, Panda Valiumek MoïMoï Records labelaren lehen ateratzea eta Copaibarena segurtatu du. Copaiba, haren musika zati aintzindaria, artista internacional ugari playlistatukoak, James Holden bezala.

Gaur egun, Panda Valiumek experimentazio eta proiektuak segitzen ditu haren Polygorn talde berrian eta jakina, Lloba, 2011.tik lantzen duena.

Ainhoa Datchary – KOREGRAFO

1997. urtetik dantzaria Begiraleak taldean (Donibane Lohitzuneko euskal dantza eskola), Ainhoa Datchary-k gaztegoeri kurtsuak eman dizkie bi urtez. Koregrafia baten sorkuntzan ere parte hartu du 2010.edizioko lizeotarren festibala kari. 2012. urtean, lehenaldikotz Lloba proiektuan esku hartzen du Getariako Baleapop festibala denboran, Panda Valiumen musikaren gainean euskal dantza integratuz.

Nicolas Novion - AUTORE / ERREALIZADORE

2008'an Malagan ikus-entzun kazetaritzan diplomatua. Urte berean, festibal batean premiatua izango den bere lehen dokumental laburra gauzatzen du. Ondoren, zombait film laburretan produktore laguntzaile bezala kolaboratzen du Ana Torres Alvarez errealizadorearekin batera. Film labur hoiek, munduan zehar laurogei bat herriko festibaletan aurkeztuak dira. Hortik landa, errealizadore eta produkzio laguntzaile gisan kolaboratzen du zinema, telebista eta publizitatean espainiar produkzio sozietate desberdinetan. 2011'an, Baxter& Rojos United elkartearen oinarrian da. Gaur egun, Kalaka taldearen abentura Madonnarekin batera kondatzen duen dokumental bat prestatzen ari da..

Thomas Carretero – MARRAZKILARIA

Getaritik heldu den marrazkilari gaztea. Angelun pasatutako arte aplikatu baxoa eta gero, gaur egun pariseko Auguste Renoir lizeoan ilustrazioa ikasten du. Bere marrazkiak, onirismoz eta humorez beteak, Sfar edo ta Quentin Blake –en lanak oroitarazten dizkigute

Iban Rusiñol - AUTORE / ERREALIZADORE

1996'an, Bainoako Cassin lizeoan ikus-entzunezko BTS bat lortzen du. Alta, musikari bezala karrera luze bat egingo du, ikus-entzunaren mundura itzuli baino lehen, eta Nicolas Novion-ekin batera. Baxter&Rojos United elkartea sortu baino lehen . Hortan, hamar bat bideoklipa « teaser » film labur eta beste ikus-entzun errealizazio gauzatzen ditu. Gaur egun, « Kalakan » taldearen abentura Madonnarekin batera buruzko dokumental bat prestatzen ari da.

Baxter & Rojos United – DELEGATUTAKO KOPRODUKTOREA

Baxter & Rojos United elkarteak ikus-entzun produkzio estuktura bat da, hinaraino musika eta kultural arloetan ibilia izana dena. Halaber, 2011.etik, aurkezpen bideoak ugari gauzatu ditu, batez ere, Kalakan hirukote famatuarentzat, Sparteens taldearentzat, bai eta ere Baionako eszena nazionalaren sustengupean ziren emanaldiak, “Ravel Jauna” (etorkizuna proiektuak), edo “Hinka” taldea bezala. Euskararen erabiltzearen modua eremu guzietan antzetzten zuen produkzio bat ere, “Bost litro” film laburra gauzatu du. Gaurko egunean, “Kalakan” hirukoteak Madonna eta Labèque ahizpekin batera bizi dituzten abentureri buruzko dokumental bat errealizatzen ari dira.

[Http://www.baxterandrojos.com](http://www.baxterandrojos.com)

Moï Moï Kolektiboa - DELEGATUTAKO KOPRODUKTOREA

Euskal Herrietik, artista, musikari, grafista eta komunikazio artesautza konstelazio bat azaleratu egin da, denak gogo berezi batzuek gauzatzeko asmo berarekin. Moï Moï izenpean batuak (finandarrak hola agurtzen dira), eragin eta euskarriak ezberdinak dituzte baina nahia koherentea gelditzen : sorpresa probokatu, txinparta piztu, eskupean dutenarekin esperimentatu, senarengan konfiantza ukan eta norberetzako adierazpen espazio bat sortu.

Praktikan, Moï Moï-ek BALEAPOP festibala urtero antolatzen duen elkarteak biltzen du, arte edizio polo bat plastiko artista gazteen enkoardatzearekin (Manon Boulart & Hanna Thual) eta musika label independente bat management/booking ardatz batekin, musikari baiezatu edo bilakatuko direnentzat (Matthys, Panda Valium, Odei, Van off martt, Elorn).


<http://www.collectifmoimoi.com/>



filmaketa



egonaldia intxaurrondo k.e – an





Work in progress – Baleapop Festibala



« Work in Progress » - Baleapop Festibala : <https://vimeo.com/72820936>

INFORMAZIO PRATIKOAK

FACEBOOK : <https://www.facebook.com/pages/LLOBA/1408987689321734>

FACEBOOK : <https://www.facebook.com/events/176356822554843/>

ATABAL : <http://www.atabal-biarritz.fr/>

SARTZEA

Urririk gomitarekin

HELBIDEA

Atabal

Moura karrikako 37an,

64200 Biarritz